

Meteorologiaz, herriaren hitzekin

Eguraldia igogailuko elkarriketetako gaia baino gehiago da. Euria, eguzkia edo haizea aberastasunerako bidea izan daitezke, fenomeno bakoitzari deitzeko moduaren bidez hizkuntza lantzen baita. Hori erakusten du Bilbon bizi den Kepa Diegez filologo eta kazetariak. Hainbat lekutako esapide eta hitzak biltzen ari da euskarak duen ugaritasuna erakutsiz.

ITSASO IBARRA

Argazkiak: Iñigo Azkona



Kepa Diegez euria behetik gora ari duela aterkiarekin harrapatu dugu... eta hoztu xamartuta ere bai, udazkena da eta.

HURRENGO EGUNEAN zer eguraldi izango den askok jakin nahi izaten du zer egin erabakitzeko, goizean jaiki eta pertsiana altxatzerakoan zerura begiratzen du askok, igogailuan ere ohiko elkarriketa gaia izaten da. Dударik gabe, asko hitz egiten da eguraldiaren inguruan eta tokiaren arabera hitz ezberdinak erabiltzen dira horretarako. Hori guztia aztertzen ari da Kepa Diegez, filologo eta kazetaria, etnometeorologiaz egiten ari den doktoretza tesian.

Herriak fenomeno meteorologikoei buruz dauzkan ideiak azaltzen saiatzen da etnometeorologia. Meteorologoak ostadarra nola sortzen den azaltzen duen heinean etnometeorologoak ostadarrak zein esanahi daukan eta horri buruz zer nolako sinesmenak nahiz kondairak dauden azaltzen du. Kepa Diegezek gai hori du ardatz dok-

toretza tesian: “Herriak eguraldiarekiko erabiltzen dituen berbak, lokuzioak eta esakerak kulturarekin nolako lotura daukaten aztertzen dihardut; hots, hizkuntzaren eta kulturaren arteko zubia- ren bila nabil. Hizkuntza kulturaren isla nabaria da, hizkuntza bakoitzak bere erara ikusten du errealitatea”.

Euskarak hainbat hitz ditu eguraldi fenomenoak izendatzeko; batetik, berezko hitzak eta bestetik, latinetik, gaztelaniatik, gaskoitik, biarnesetik nahiz frantsesetik harturiko hainbat mailegu. Hitz horiek ez dira toki guztietan erabiltzen eta kostaldean ala barnealdean egoteak ere eragiten du hitzoren erabileran: “Eguraldia ez da bera herri guztietan eta horregatik izendapenak desberdinak dira. Ingaratzen gaituenak baldintzatzen du errealitateaz jabetzeko ikuspegia”, dio Diegezek. Hala, elurra maiz egiten

duen lekuan xehetasun gehiagoko hitzak erabiliko dituzte. Esaterako, Baztan aldean elurra oinetakoari erantsi zaiola adierazteko hitza dute, *txurlo*.

Izendapenak orokortuz, galduz

Eguraldiaz hitz egitea elkarriketa bati hasiera emateko erabiltzen da maiz, denek hitz egiten dute horren inguruan. “Jende guztiak daki berbetan horri buruz, baina bitxia da zer nolako pertzepzioak dauzkagun. Nire ustez, komunikabideak direla- eta, larregi hitz egiten da eguraldiari buruz. Ez da albistea izan behar 80 kilometro orduko haizea ibiltzea, lehen ez zen eta gaur bai. Zergatik? Lehen eguraldiak ereiteko edo biltzeko ardura zigun, gaur, hondartzara joateko. Lehen iragarpenak norberak egiten zituen eta orain eginda ematen dizkigute. Baserri giroa gal-

Bloga irakurriz hiztegia aberastu

Bizkaiko kostaldean traganarrua agertu zenean ekin zion Kepa Diegezek etnomet blogari (etnomet.blogspot.com). Ordutik ia hiru urte pasa dira eta Diegezek bertan eguraldiaren inguruko hainbat kontu jaso du. Egunean egiten duen eguraldiaren inguruan aritzen da askotan. Era berean, eguraldi fenomeno horri buruzko hitz nahiz kontu ezberdinak aipatuz eta irakurleen proposamenak jasoz, hala hitz berriak bilduz. Egun

guztiek izaten dute santu baten izena eta hala egokitzen denean ere Diegezek biak lotuz eguraldiaz dihardu. Askotan erabili izan dira zenbait santu eguraldiari loturiko esaera zaharrak sortzeko, esaterako San Andres nahiz San Martinen inguruan badira hainbat eta horien berri ere aurki daiteke etnomet.blogspot.com blogean. Eguneroko elkarrizketetan eguraldiaz hitz egiten duenak bertan du hiztegia aberasteko tresna aparta.

duz doan heinean berarekin zerikusia daukan ondare guztia suntsituz doa, tamalez. Oraindik gordetzen dira hainbat hitz eta kontu, baina noiz arte?”

“Komunikabideak direla-eta, larregi hitz egiten da eguraldiari buruz. Ez da albisteia izan behar 80 kilometro orduko haizea ibiltzea, lehen ez zen eta gaur bai. Zergatik?”

KEPA DIEGEZ

Hainbeste hitz egitearen eraginez terminoak orokortu egin dira eta hitzak ez jakitearen ondorioz erdaretara jo da sarri. Kepa Diegezek 2004ko urriaren 31n Bizkaiko kostaldean ikusitako *tornado*a ekarri du gogora hori azaltzeko: “Euskal komunikabideetan zoritxarrez, *tornado* bat agertu zela aipatu zuten. Edozein arrantzalek daki nola esaten zaion horri, itsasoan hamaika aldiz agertutakoak baitira traganarruak, trabañarroak, tragarroiak (Bizkaiko kostaldean) edo mangerak (Donostialdean).

Komunikabideek arreta handiagoa jarri behar lukete, hitz hedatzaile nagusietarikoak baitira. Beste batzuetan fenomenoak nahasten dira eta ondorioz, izendapenak ere bai”.

Hego haizeaz

Terminoak orokortzeko bidean hego haizea da horren adibidetariko bat, fenomeno hori izendatzeko hainbat hitz erabiltzen dira, “hego haize hutsak mereziko luke tesia egitea”. Hala, iturri hauetan oinarritu izan da herria izendapenak egiteko:

- ✓ Hego haizearen izaera: *haize erre*.
- ✓ Izendapen kardinala: *hego haizea*, *haize hegoa*.
- ✓ Izendapen orografikoa, herriak daukan kokapenaren arabera: *aurreko haizea* edo *beheko haizea*.
- ✓ Izendapen toponimikoa, ondoko herriren bat: *Nabarniz haizea*, elementu geografikoren bat, *mendi haizea*, herrialderen bat aipatzea, *Gaztela haizea*.
- ✓ Sasoi izendapena: *urri haizea*.
- ✓ Erreferentzia astronomikoa: *eguzki haizea*.
- ✓ Osterantzeko izendapenak: *andre haizea*.

Eguraldiaren adarrak

Adar hitzak ere hainbat fenomeno izendatzeko balio izan du. “Herriak

lexikoa sortzeko aukeratu dituen bideetariko bat metaforez baliatzea izan da. Hizkuntza guztiek aukeratzten dute baliabide hori, horregatik eratorri da adar berbaren hedapen semantikoa”, dio Diegezek. Ostadarraz gain –zubi adar edo itsaso adar ere izendatzen da–, beste hainbat hitzetan ere erabili da adar hitza:

- ✓ Ekaitza izendatzeko: *adarraire*.
- ✓ Erauntsia izendatzeko: *erauntsi adar*.
- ✓ Euria bota: *euri adar*.
- ✓ Txingorra: *barri adar*.
- ✓ Euriz beteriko hodeia: *adar gaizto*.

Elurrak, 200 hitz

Elurra izendatzeko hainbat hitz erabiltzen ditu euskarak. “Elurra dela-eta harrigarria da euskarak daukan aberastasuna. Elurraren inguruko prozesu guztiaren berri ematen digu euskarak; nola egiten duen elurra, nolakoa den maluta, txikia edo handia, gogorra edo biguna, beste fenomeno batzuekin nahastean sortzen diren izendapenak, nola esaten zaion erortzen den bitartean, lurraren gainean dagoela zer gertatzen den, zer nolako prozesua daukan, urtzen hasten denean zer esaten den... oso oparoa da. Inuitek ez ezik euskaldunok ere makina bat berba daukagu elurraren inguruan”.

Atsotitzak

Hitzez gain hainbat esaera zaharrek ere ematen dute eguraldiaren berri: “Aroaren inguruko atsotitzak izugarrizko altxorra dira. Mendeak joan mendeak etorri, jendearen behapenetan oinarriturik daude. Ez dira une zehatz bateko aldikadak, ez. Gainera, aroaren jokabidea ulertzen laguntzen digute. Kontraesankorrak badira ere, baserritarrek alde biko atsotitzak sortu ditu eta bata betetzen ez bada, bestea izango da. Beti asmatzen dute!”, azaldu du Diegezek. ■

Babeslea: Irizar

